

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU)
2. Sektorea:	Hezkuntza
3. Langile kopurua:	167
4. Webgunea:	https://www.ehu.eus/eu/web/bilboko-hezkuntza-fakultatea
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Ikuspegi historikotik, gure eskola Bilbon sortu zen, 1902an; goi mailako graduak ikasketak eskaintzen zituen orduan. 1962an, Arangoitira (Deustu) eraman zen eskola, eta Eskola Arrunt gisa jardun zuen, harik eta UPV/EHUn Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Eskola gisa sartu arte. 2011ko irailean, eskola Arangoititik Leioako Campuseko eraikin berrira lekualdatu zen; eraikina César Azkarate arkitektoaren lana da. Azkenik, 2018ko urtarrilean, Bilboko lehengo Irakasleen Unibertsitate Eskolak Bilboko Hezkuntza Fakultate izena hartu zuen.</p> <p>Fakultatean, gaur egun, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte Hezkuntzako graduak eta Psikodidaktikako eta MUTAE master ofizialak ematen dira, bai eta beste berezko titulu eta masterrak ere.</p> <p>Ikerketa jarduera handia ere egiten da. Arlo guztietan daude ikertalde finkatuak, eta horiek oinarri dira gazte ikertzaileen karrera sustatzeko. Gainera, mugikortasun programa erakargarria ere badugu; bertan, erakunde arteko akordioak daude, SICUE, ERASMUS+, Amerika Latina eta beste programa batzuen esparruan.</p>

Harremanetarako datuak


Solaskidearen izen-abizenak:	Ikasle, Gizarte Proiektzio eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea (Aitor Iglesias)
Helbide elektronikoa:	bhf.ikasleak@ehu.eus
Telefonoa:	946017508

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Euskararen txokoa
2. Praktika onaren azalpena:	Euskararen txokoa
Zer da? Zertan datza?	Bilboko Hezkuntza Fakultatean Euskararen txokoa deituriko lekua sortu da. Guztira lau puntu estrategikotan kokatu dira panel batzuk euskararen erabilera egokia sustatzeko. Era bitako kartelak daude: euskara zuzena bultzatzen dutenak eta erdarazko esamoldeak ekiditeko bultzatzen dutenak eruren orde euskarazko ordaina ematen.
Nondik dator?	Antzeko ekintza bat UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean egiten zen ikasleentzako vending makinak zeuden lekuan. Geuk ere horrelakoak jarri ditugu kafetegiaren sarreran eta ikasleek eta kanpotik datozen jendeak Fakultatean zehar dituzten jesarlekuen ondoan.
Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	Ekintza honekin euskara jatorragoa lortu nahi da erdal kalko okerrak saihesteko.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

- 1) Kafetegiaren ondoko panela



2) Jesarlekuen ondoko panela

